

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2022ko azaroa

Euskal AEko landetxeetako sarrera eta ostatu-gauen kopuruek % 10,9 eta % 4,6 egin dute gora 2022ko azaroan, hurrenez hurren

Apartamentu turistikoetan, sarrerek % 37,8 egin dute gora, eta ostatu-gauek, % 15,7

Euskal AEko **landetxeetako** sarrera eta ostatu-gau kopuruek gora egin dute, 2022ko azaroan, eta 8.500 eta 18.520 izan dira guztira, hurrenez hurren; alegia, urte arteko igoera sarreretan %10,9koa izan da eta, ostatu-gauetan, % 4,6koa, Eustatek emandako datuen arabera.

Jatorria kontuan hartuta, Estatuko jatorria izan duten sarreraren kopuruak gora egin du % 8,6 eta ostatu-gauenak behera, % 0,7. Atzerriko jatorrikoek, berriz, % 32,0 egin dute gora sarreraren kasuan, eta % 58,6 behera, ostatu-gauenean.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Azaroa 2022

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2022/11	m/m-12 (%)	2022/11	m/m-12 (%)	2022/11	2021/11	2022/11	p.p. *	2022/11	p.p. *
EUSKAL AE	8.500	10,9	18.520	4,6	2,18	2,31	14,5	0,8	18,2	1,8
Estatukoak	7.526	8,6	16.039	-0,7	2,13	2,33	-	-	-	-
Atzeritarrak	974	32,0	2.481	58,6	2,55	2,12	-	-	-	-
Araba/Álava	1.834	18,9	3.345	6,7	1,82	2,03	10,7	0,9	12,7	0,7
Estatukoak	1.715	19,4	3.190	9,4	1,86	2,03	-	-	-	-
Atzeritarrak	119	12,3	155	-29,5	1,30	2,08	-	-	-	-
Bizkaia	2.688	27,6	5.689	18,3	2,12	2,28	15,8	2,7	19,6	3,7
Estatukoak	2.471	33,9	5.042	17,0	2,04	2,33	-	-	-	-
Atzeritarrak	217	-16,5	647	29,9	2,98	1,92	-	-	-	-
Gipuzkoa	3.978	-1,0	9.486	-2,9	2,38	2,43	15,7	-0,4	20,1	1,2
Estatukoak	3.340	-8,4	7.807	-12,5	2,34	2,45	-	-	-	-
Atzeritarrak	638	71,5	1.679	98,5	2,63	2,27	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Abenduaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2022ko azaroan Euskal AEko landetxeetan izan diren sarreraren % 88,5 Estatuko jatorrikoak izan dira. Atzerriko jatorriko 974 kopuru osoaren % 11,5 dira. Ostatu-gauetan, banaketa antzekoa izan da; izan ere, % 86,6 nazionalak izan dira eta gainerako % 13,4a, atzerriko jatorrikoa.

2022ko azaroan, urte arteko aldakuntzak sarrera kopuruan ez dira homogeenak izan lurralde historikoaren arabera. Gipuzkoan, sarrera kopuruak % 1,0 egin du behera eta, Araban eta, Bizkaian, berriz, % 18,9 eta % 27,6 gora, hurrenez hurren. Ostatu-gauen kasuan, beherakada % 2,9koa izan da Gipuzkoan, eta balio positiboak izan dituzte bai Araban (% 6,7) bai Bizkaian (% 18,3ko igoera).

Establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 2,18 egunekoa izan da 2022ko azaroan, 2021eko hil berean baino pixka bat baxuagoa, orduan 2,31 egunekoa izan baitzen.

Plazen eta gelen okupazio-mailek urte arteko igoera txikia izan dute: ehuneko 0,8 eta 1,8 puntu, hurrenez hurren; plazen arabera neurtuta, % 14,5, eta, gelen arabera neurtuta, % 18,2.

Euskal AEko apartamentu turistikoetan, sarrerak % 37,8 areagotu dira eta ostatu-gauak, % 15,7, 2022ko azaroan

Apartamentu turistikoei dagokienez, **2022ko azaroan**, sarrerek eta ostatu-gauak honako balio hauek izan dituzte: 8.952 eta 37.857, hurrenez hurren. Aurreko urteko azaroarekin alderatuta, sarreren urte arteko hazkuntza % 37,8koa izan da, eta ostatu-gauena, % 15,7koa.

Igoera horiek Estatuko jatorria duten pertsonen kopuruan (% 36,7 sarreretan eta % 15,0 ostatu-gauetan) eta atzerriko jatorria dutenen kopuruan (% 41,5 eta % 17,3, hurrenez hurren) izan dira.

Sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Azaroa 2022

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamentuak	
	2022/11	m/m-12 (%)	2022/11	m/m-12 (%)	2022/11	2021/11	2022/11	p.p. *	2022/11	p.p. *
EUSKAL AE	8.952	37,8	37.857	15,7	4,23	5,04	28,2	-1,0	54,9	-3,8
Estatukoak	6.818	36,7	26.200	15,0	3,84	4,57	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.134	41,5	11.657	17,3	5,46	6,59	-	-	-	-
Araba/Álava	988	34,0	6.426	-12,3	6,50	9,93	20,0	-5,1	54,2	-15,0
Estatukoak	905	38,5	5.051	-3,7	5,58	8,02	-	-	-	-
Atzeritarrak	83	-1,4	1.375	-33,9	16,61	24,79	-	-	-	-
Bizkaia	5.765	39,0	13.601	38,4	2,36	2,37	24,5	0,7	33,6	-6,6
Estatukoak	4.309	40,6	9.009	34,2	2,09	2,19	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.456	34,6	4.592	47,2	3,15	2,88	-	-	-	-
Gipuzkoa	2.199	36,5	17.830	14,6	8,11	9,66	38,2	0,8	74,6	9,0
Estatukoak	1.604	26,4	12.140	12,2	7,57	8,53	-	-	-	-
Atzeritarrak	595	74,1	5.690	20,0	9,56	13,87	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Abenduaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Lurralde historikoei dagokienez, sarreren eta ostatu-gauen hazkuntzaren buru Bizkaia izan da, % 39,0ko eta % 38,4ko hazkuntzak izan baititu, hurrenez hurren. Gipuzkoan, sarreren igoera % 36,5koa izan da eta ostatu-gauena, % 14,6koa. Araban, azkenik, sarreretan % 34,0ko igoera izan da, eta ostatu-gauetan, % 12,3ko jaitsiera.

Establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 4,23 egunekoa izan da 2022ko azaroan, 2021eko azaroan baino baxuagoa, orduan 5,04 egunekoa izan baitzen.

Plazen arabera okupazio-maila, Euskal AEn, % 28,2koa izan da, eta, apartamentuen arabera neurtuta, % 54,9koa.

Informazio-oharrak

Landetxeen ETHaren erantzun-tasa % **93,2**koa izan da, eta apartamentu turistikoena, % **80,6**koa, 2022ko azaroan.

Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62